

Prensa oharra

Nota de prensa



Ertzaintzak eta Udaltzaingoak “arrisku handiko izaera” duen Realaren *Champions* partidarako segurtasun dispositiboa prestatu dute

Amara Berrin hainbat eragin sortuko dira, bi segurtasun indarrek, Realak eta Udalak adostutako neurrien ondorioz

Trafikoa moztu egingo da estadioaren inguruan 19:00etatik 21:00etara. Hortaz, egingo diren sarrera eta irteerak aldeztu aurretik planifikatzeko aholkatu dute

Martxoaren 5ean, 21:00etan, Reale Arena estadioan jokatuko den Real Sociedad eta Paris Saint-Germain futbol taldeen norgehiagoka arrisku handiko partida izango dela ohartarazi dute Ertzaintzak eta Udaltzaingoak. Hori dela-eta, segurtasun dispositibo berezi bat prestatu dute hiri osoan, eta hain zuzen ere, partida hasi baino ordu batzuk lehenago estadioaren inguruko trafikoaren fluxuetan eragina izango duen dispositiboa.

Ertzaintzaren, Udaltzaingoaren, Donostiako Udalaren eta Real Sociedad futbol taldearen hainbat ordezkari bilera egin dute gaur, eta bertan, asteartean hiri-segurtasuna bermatzeko neurriak adostu dituzte. PSG futbol taldearen zaleen etorrera eta milaka Realzaleen bertaratzea direla-eta, polizia arduradunek arrisku handiko partida izendatzea erabaki dute.

Horrenbestez, hainbat neurri hartu dira partida ikustera joango diren bi zalegoen arteko zein gainerako hiritarren arteko bizikidetzaguneak bermatzeko. Hortaz, 19:00etatik aurrera Amara Berrin Pio XII eta Anoeta Estadioaren artean, trafikoa moztu egingo da. Garraio publikoak eta larrialdi zerbitzuek igaro ahal izango dute.

Partidaren nazioarteko izaera eta pertsona ugariren bertaratzea arrisku handiko partida izendatzearen arrazoia dira. Hori dela eta, aurreko egunetik segurtasun dispositibo berezia aktibatuko da hirian. Eta era berean, beste hainbat neurri hartuko dira, Anoeta Estadioaren eta Amara Berri auzoaren segurtasuna bermatzeko.

Udalaren eta segurtasun operatiboaren arduradunek dei egin dute garraio publikoa erabiltzeko, estadiora denborarekin joateko eta Amarako auzotarrei zein hiriko beste auzoetako bizilagunei eskatu diete kontuan hartzeko neurriok euren egunerokotasunean izan ditzaketan eraginak.

Isolamendu perimetrala

Ohiko segurtasun neurriez gain, dispositiboa indartuko da eta 19:00etatik 21:00etara Amara Berri auzoko zati batetan trafikoa moztuko da eta Anoeta estadioaren ingurua isolatuta geldituko da.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Segidako kaleek osatuko dute isolatutako perimetroa:

- **Hegoaldea:** Zorroaga pasealeua – Aita Donostia plaza – Errondo pasealekua (bide hauetan trafika moztuko da Portutxo biribilgunean eta Toribio Alzaga eta Zorroaga pasealekuaren arteko biribilgunean).
- **Iparraldea:** Pío XII plaza - Eustasio Amilibia
- **Oeste:** Karlos Iaren hiribidea
- **Este:** Felipe IV – Irun Plaza - Baleazaleak



Larrialdietako ibilgailuak, garraio publikoa, mugikortasun urriko pertsonak eramaten dituzten ibilgailuak edo Osakidetzako etxez-etxeko asistentzia zerbitzuak igaro ahal izango dira. Garraio publikoak, Madrilgo hiribidetik ibili ahal izango da bi norabideetan, baina ordu horietan Isabel II eta Aita Donostia plazaren artean, bi norabideetan, dauden geltokiek ez dute zerbitzurik izango.

Prensa oharra

Nota de prensa



Itxieraren barruan aparkatuta dauden ibigailuren bat mugitu beharko balitz, ibilgailu horiek Pio XII plazatik aterako dira. Ospitalera joan behar duten hiritarrei aholkatzen zaie GI-40 errepidea erabiltzea.

Amara Berriko bizilagunak

Amara Berrin TAOren 5-1 sektorearen egoiliar txartela duten auzotarrek euren ibilgailuak aparkatu ahal izango dute hiriko beste edozein sektoreetan, martxoaren 4tik 6ra, biak barne, sektore bakoitzaren TAO egoiliar txartela duten baldintza berberetan.

Dena dela, segurtasun arduradunek hiritarrei eskatu diete, ahal duten heinean aipatutako eremu perimetralera ez hurbiltzeko, bide alternatiboak erabiltzeko eta egingo diren sarrerek eta irteerak denborarekin planifikatzeko.

Beste hainbat neurri

Gainera, gogorarazi dute kirolaren bortizkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta tolerantzia ezaren aurkako Legeak kirol-instalazioetan edo inguruetan bengalak eramatea edota erabiltzea debekatzen duela, eta bide publikoan erabiltzeak ere Hiri Segurtasuna Babesteko Legea erabilia zigortu daitekeela, betiere baldin eta arau-hauste penalik ez badago.

Donostia / San Sebastián, 2024ko otsailak 29